

27/2023 EBAZPENA, ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREKO ZUZENDARI-GERENTEARENA, ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREAN BEHIN BETIKO MUGIKORTASUN HORIZONTALERAKO ZERRENDELEN IREKIERA ONARTZEKO DEN 285/2022 EBAZPENA DEUSEZTATZEN DUENA ETA ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREAN BEHIN BETIKO MUGIKORTASUN HORIZONTALERAKO ZERRENDAK BERRIRO IREKITZEKO DEIALDIA EGITEN DUENA.

Pasa den 2022ko abenduaren 21ean Arabako Osasun Mentaleko Sareko Behin Betiko Mugikortasun Horizontaleko zerrendak ireki ziren 285/2022 Ebazpenean xedatutakoaren arabera eta 2023ko otsailaren 7an deialdi horretako behin-behineko zerrendak argitaratu ziren 24/2023 Ebazpenaren bidez.

Arabako Osasun Mentaleko Sarea Ospitale Psikiatrikoko ospitalizazio-unitateak berregituratzen ari da, eta, horren ondorioz, aurreko deialdian eskainitako destinoetan aldaketak izango dira. Aldaketa horiek eragina izan dezakete 2022ko abenduaren 21eko deialdian aurkeztu diren pertsonen egindako aukeraketan.

Hauek dira, funtsean, aldaketok:

- Ospitale Psikiatrikoko egungo Errehabilitazio Intentsiboko Unitatea 1 (ARI1) eta Azpiakutuen Unitatea (ASA) bat egitea, (barne antolaketari dagokionez, paziente gazteak eta paziente helduak artatuko dituzten unitateetan banatuta) eta Azpiakutuen Unitatea izena izango du.
- Erizain laguntzaileen kategorian erreten unitate bat sortzea.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko Barne Mugikortasunerako Batzordeak, 2023ko otsailaren 14an bilduta, gardentasunaren mesedetan, bide onena iritzi dio aurreko deialdia deuseztatu eta behin betiko barne mugikortasuneko zerrendak berriro irekitzeari, kategoria eta destino guztientzat.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Deuseztatzea 285/2022 Ebazpena, Arabako Osasun Mentaleko Sareko Behin Betiko Mugikortasun Horizontalerako zerrenden irekiera onartzeko dena, eta 24/2023 Ebazpena, Arabako Osasun Mentaleko Sareko Behin Betiko Mugikortasun Horizontalaren izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena.

BIGARRENA.- Onartzea Arabako Osasun Mentaleko Sarean Behin Betiko Mugikortasun Horizontalerako zerrendak irekitzeko beste deialdi bat. Deialdi hori, hain zuzen, Ebazpen honen eranskin gisa ageri da.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau argitaratzea Arabako Osasun Mentaleko Sareko iragarki-oholetan eta webgunean.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekursoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ezartzen da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 16an.


**Sin.: Eguzkine de Miguel Aguirre
Zuzendaria gerentea**



ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREAN BEHIN BETIKO MUGIKORTASUN HORIZONTALERAKO ZERRENDAK EGITEKO DEIALDIA

ARAU APLIKAGARRIAK

2019ko azaroaren 27ko Erabakia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko zerbitzu-erakundeetan lanpostuak behin betiko barne-mugikortasun bidez betetzeko irizpide orokorrak onesten dituena.

DEIALDIAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Izangaien derrigor bete beharko dituzte baldintza orokor hauek:

1. Lanpostua jabetzan edukitzea Arabako Osasun Mentaleko Sarean.
2. Egungo kategoria/lanpostu funtzionala eta Behin Betiko Mugikortasun Horizontaleko xede den destinoko edo destinoetako kategoria/lanpostu funtzionala berdina izatea.
3. Euskararen ezagutza honako hauetan ezarritako irizpideen araberakoa izango da: martxoaren 18ko 67/2003 Dekretua, Osakidetzen euskararen erabilera normalizatzeko dena; eta Arabako Osasun Mentaleko Sareko Euskara Plana.
4. Osasun-arrazoiengatiko egokitzapena duten pertsonek edo prozedura horren faseren batean dauden pertsonek derrigorrez Prebentzioko Oinarrizko Unitatearen ziurtagiria beharko dute, eskatutako destinoetarako gai direla esaten duena, alegia.

DESTINOAK:

Kategoriarako/lanpostu funtzionalerako dauden antolaketa-unitate guztiak hautatu ahalko dituzte interesdunek, nahiz eta eskaera aurkeztean antolaketa-unitate horien kategoria/lanpostu funtzional horretan lanpostu hutsik ez izan.

BAREMOA

- 1.- Oro har, lanbide-esperientziako merezimenduak hartuko dira kontuan, baita euskara ere, dagokion kategoriako/espezialitateko izaera orokorreko azken lekualdatze-lehiaketarako ezarritako baldintzetan, eskaerak aurkezteko urteko epearen azken egunera arte.
- 2.- Amaierako puntuazioan berdinketa egonez gero, izaera orokorreko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean aplikatzekoak diren irizpideak erabiliko dira.

ESKABIDEAK

Behin betiko mugikortasun horizontaleko zerrendetan egon nahi duten pertsona **GUZTIEK** aurkeztu behar dute dagokien eskabidea. Deialdi honek atxikita darama kategoria bakoitzaren araberako ESKABIDE EREDUA.

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Eskainitako zerbitzuak ziurtatzen dituen egiaztagiriaren originala, SAP-Giza Baliabideak aplikazio informatikoan jasota daudenak salbu. Izan ere, horiek ofizioz konputatuko dira.
- Hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua. Ez dute euskararen ezagutza egiazatzeko dokumentaziorik aurkeztu beharko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak aitortutako hizkuntza-eskakizuna dutenek edo beste Herri Administrazio batek igorritako hizkuntza-eskakizuna baliokidetuta dutenek.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

2023ko otsailaren 20tik 2023ko martxoaren 3ra, biak barne.


AURKEZTEKO LEKUA

Arabako Osasun Mentaleko Sareko Pertsonaleko Zerbitzua.

AURKEZTEKO MODUA

Eskabideak egiteko erantsitako ereduak erabiliko dira, lanbide-kategoriaren/lanpostu funtzionalaren arabera; eta interesdunak izena emanda egon nahi duen unitatea edo unitateak aukeratu beharko ditu.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 16an.



RESOLUCIÓN Nº 27/2023 DE LA DIRECTORA GERENTE DE LA RED DE SALUD MENTAL DE ARABA, POR LA QUE SE ANULA LA RESOLUCIÓN Nº 285/2022 POR LA QUE SE PROCEDIO A LA APERTURA DE LISTAS DE MOVILIDAD HORIZONTAL DEFINITIVA EN LA RED DE SALUD MENTAL DE ARABA Y SE PROCEDE A CONVOCAR UNA NUEVA APERTURA DE LISTAS DE MOVILIDAD HORIZONTAL DEFINITIVA EN LA RED DE SALUD MENTAL DE ARABA.

Que el pasado 21 de diciembre de 2022 se procedió por Resolución nº 285/2022 a la apertura de listas de Movilidad Interna Definitiva en la Red de salud mental de Araba habiéndose publicado el 7 de febrero de 2023 las listas provisionales derivadas de la mencionada convocatoria por Resolución nº 24/2023.

Que la Red de Salud Mental de Araba está inmersa en una reestructuración de las unidades de hospitalización del Hospital Psiquiátrico que conllevan que los destinos ofertados en la anterior convocatoria vayan a ser objeto de cambios que pudieran afectar a la elección hecha por las personas que se han presentado a la convocatoria efectuada el pasado 21 de diciembre de 2022.

Que dichos cambios fundamentalmente suponen:

- La fusión de la actual unidad Área de Rehabilitación Intensiva 1 (ARI 1) con el Área de Subagudos del Hospital Psiquiátrico (que se subdividirá internamente en atención a pacientes jóvenes y a pacientes adultos) y que pasará a denominarse Área de Subagudos.
- La creación de una unidad de Retén para el colectivo de auxiliares de enfermería.

Que en aras de la trasparencia, la Comisión de Movilidad Interna de la Red de salud mental de Araba reunida el 14 de febrero de 2023 ha considerado como lo más conveniente anular la convocatoria en curso y proceder a una nueva apertura de listas de movilidad interna definitiva en todas las categorías y destinos.

Por todo lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente,

RESUELVO

PRIMERO.- Anular la Resolución nº 285/2022 por la que se procedió a la apertura de listas de Movilidad Horizontal Definitiva en la Red de Salud Mental de Araba así como la Resolución nº 24/2023 por la que se publicaban los listados provisionales derivados de esta convocatoria.

SEGUNDO.- Aprobar una nueva convocatoria de apertura de listas de Movilidad Horizontal Definitiva en la Red de Salud Mental de Araba, que figura en Anexo a la presente Resolución.

TERCERO.- Acordar la publicación de la presente Resolución en los tablones de anuncios y en la página web de la Red de Salud Mental de Araba.

CUARTO.- Contra la presente Resolución, podrá interponerse Recurso de Alzada ante la Dirección General de Osakidetza, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación, de conformidad con la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de febrero de 2023


Fdo: Eguzkine de Miguel Aguirre
Directora Gerente



SINDICATO DE TÉCNICOS DE ENFERMERÍA

CONVOCATORIA PARA LA ELABORACION DE LISTAS DE MOVILIDAD HORIZONTAL DEFINITIVA EN LA RED DE SALUD MENTAL DE ARABA

NORMATIVA APLICABLE

Acuerdo de 27 de noviembre de 2019, del Consejo de Administración de Osakidetza- Servicio Vasco de Salud, por el que se aprueban los criterios generales para la provisión de puestos mediante movilidad interna definitiva en las organizaciones de servicios del Ente Público Osakidetza-Servicio Vasco de Salud.

REQUISITOS DE LA CONVOCATORIA

Los aspirantes deberán cumplir obligatoriamente los siguientes requisitos generales:

1. Tener plaza en propiedad en la Red de salud mental de Araba.
2. Pertener a la misma categoría/puesto funcional que el del destino o destinos objeto de la Movilidad Horizontal Definitiva.
3. El conocimiento del euskera se ajustará a los criterios establecidos en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de Normalización lingüística del Uso del euskera de Osakidetza y el Plan de euskera de la Red de salud mental de Araba.
4. Aquellas personas que hayan sido objeto de una adecuación por motivos de salud o estén incursas en alguna fase de este procedimiento, necesitarán preceptivamente el certificado de aptitud de la Unidad Básica de Prevención para los destinos solicitados.

DESTINOS:

Las personas interesadas podrán elegir todas las unidades organizativas para la categoría/puesto funcional, con independencia de que, en el momento de presentar la solicitud, las unidades organizativas no dispongan de puestos vacantes de la categoría/puesto funcional.

BAREMO

- 1.- Se considerarán con carácter general los méritos de experiencia profesional y euskera, en los términos establecidos para el último concurso de traslados de carácter general de la categoría/especialidad correspondiente, a último día de plazo anual de presentación de solicitudes.
- 2.- Los criterios en caso de empate en la puntuación final, serán también los mismos que los que resultan de aplicación al Concurso de traslados abierto y permanente de carácter general.

SOLICITUDES

TODAS las personas interesadas en formar parte de las listas de movilidad interna definitiva deberán presentar la correspondiente solicitud. Se adjunta a esta convocatoria MODELO DE SOLICITUD en función de cada categoría.

DOCUMENTACION A PRESENTAR JUNTO CON LA SOLICITUD

- Certificado original de servicios prestados, excepto los que ya consten en la aplicación informática SAP- Recursos Humanos, que serán computados de oficio.
- Fotocopia compulsada de certificación de perfil lingüístico. Estarán exentos de aportar la documentación acreditativa del conocimiento de euskera quienes tuvieran ya reconocida la acreditación del correspondiente perfil lingüístico o tengan acreditada la equivalencia del perfil lingüístico emitido por otra Administración Pública por parte de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

PLAZO DE PRESENTACION DE SOLICITUDES

Del 20 de febrero de 2023 hasta el día 03 de marzo de 2023 incluido.

LUGAR DE PRESENTACION

Servicio de Personal de la Red de Salud Mental de Araba.

FORMA DE PRESENTACION

Las solicitudes se realizarán en los modelos adjuntos en función de la categoría profesional/puesto funcional, debiendo el interesado optar por la o las unidades en las que desee estar inscrito.

En Vitoria-Gasteiz a 16 de febrero de 2023

